

ASTEAZKENA

2023/11/15
11. urtea, 1.873. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €



Babarrunaren Festa antolatzen duten eragileek aurkeztu zuten atzo larunbateko egitaraua. J. ARTUTXA

Festa ederra Tolosan, perla beltzaren bueltan

Babarrunaren Festaren baitan lehiaketa gastronomikoa, ekoizleen lehiaketa eta azoka berezia egingo dute; jatekoaz gain, musikaz eta dantzaz gozatu ahalko da, egun osoan, Euskal Jaiaren barruan // 3

Gizonen taldeak gaur ekingo dio bosgarren denboraldiari

Gizarte berdinzaleagoa lortzea du helburu, Tolosako taldeak; kultur etxean izango da saioa // 6

Multzoko lehen lau postuetan amaitzea dute helburu

Tolosa Eskubaloia laugarren postuan dago sailkapenean; hurrengo fasera pasa nahi dute // 7

Adin ezberdineko jendea, elkarrekin kantuan

Irurako Onintza abesbatza Herrialde Katalanetan izan berri da // 5

Lehiberri eguna egingo dute, eskualdeko ekonomia sustatzeko

Hilaren 23an izango da Lehiberri zentroan, eta hitzaldiak, mahai-inguruak eta saretze ariketak osatuko dute egitaraua // 4

TOLOSAN
Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika

Ginekologia
Haurdunaldia eta erditzea
Jaio aurreko diagnostikoa eta fetuaren medikuntza

Irune Alzola doktoreak astelehenetan ematen dizu arreta 15:00etatik 19:00etara

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Tolosa. Laskorain kalea, 16 (behegaina) - 943 506 090

ZUATZU KLINIKA **10 urte** **clinicazuatzu.com**

ehun #
FISIOTERAPIA

Tel.: 633 04 94 74
www.ehunfisioterapia.eus

Bigarren agintaldiari «gustura eta lasai» heldu diola adierazi du Oihana Amundarainek; datozen lau urteetan aldamenen izango dituen taldekideak berriak diren arren, aurreko legealdian zintzilik geratu zitzaizkien proiektuak amaitzen saiatzea dute helburu, «herriarren beharrak eta proposamenak kontuan izanda».

Leyre Carrasco
Elduain

Aurtengo agintaldiko martxa hartua du Oihana Amundarainek (Amasa-Villabona, 1980). Talde berriarekin eutsi dio bigarren gozalkatetzari, orain arte zintzilik geratu zitzaizkien proiektuak bukatzeko helburuarekin.

Bigarren agintaldiari heldu diozu. Zer moduz hasi duzu?

Ondo hasi dut, gustura. Aurreko urtean hasi nintzen oso galduta eta urduri nengoan, baina lau urte igaro ostean ikasi egiten duzu. Orain lasaia nago gauzak nola diren jakinda. Gauza berriak beti etortzen dira baita nondik hartu ez dakizkizunak, baina aurreko errazago ari naiz.

Zergatik erabaki zenuen kargua berriro hartzea?

Aurreko legealdian egin nahi nituen proiektu asko nituen buruan, eta horietako asko amaitzeko astirik ez nuen izan. Izan ere, aurreko legealdia oso arraroa izan zen, tartean pandemia tokatu zitzaigun eta gauza asko ezin izan genituen egin edo bukatu. Ilusioz aurrera atera nahi nituen proiektu asko eta herriarentzako egokiak iruditzen zi-

«Nire herriarentzako gauza onak nahi ditut»

OIHANA AMUNDARAIN ELDUAINGO ALKATEA

Irigarritasuna eta mugikortasuna bermatzea, ostaturia irekitzea eta zerbitzu berriak jartzea dira datozen lau urteetako asmoak



L.C.

tzaizkidan proiektu asko bertan behera geratu zitzaizkidan. Horiek guretik hasi zirenez, aurrera jarraitzeko erabakia hartu nuen, horiei berriro heldu edo martxan

jartzeko helburuarekin. Beraz, ea orain taldean daudenak gero ere jarraitzen duten, modu horretan gauzak errazago egiten baitira.

Zein proiektu nagusi dituzue lau urte hauetarako?

Lehendabizi, orain arte zintzilik genituen proiektuak bukatzea. Horietako bat errepideko obrak dira. gure eskariz Gipuzkoako Foru Aldundia ari da obrak gauzatzen, eta gu gainean gaude ea dena txukun eta ondo bukatzen den. Bestetik, gure helburua ostaturia irekitzea da. Badirudi martxan dagoela eta martxa hartzen duen horri lagunduko diogu urte luzeetan jarraitu dezan. Hirigintzari dagokionez, bideak asfaltatzen eta txukuntzen gabilta eta argiteria gehiago jartzen eta zona ilunak argitzen. Aurreko, gainera, Ertotxe apaiz etxea

erosteko aukera izan dugu. Salgai jarri zuen gotzaindegia eta erosteko erabakia hartu genuen, beraz, horretan gabilta. Nahiz eta bere garaian gotzaindegia erabaki kontratu bat sinatu genuen etxebizitzak egiteko, herriari zerbitzu desberdinak eskainiko dizkion eraikina izatea erabaki dugu azkenean. Hori bai, oraindik ez dakigu zeintzuk izango diren zerbitzu horiek, baina horretarako izango dela behintzat bai. Gero, hausnarketa prozesu baten bitartez herriarren beharrak zeintzuk diren ikusi eta horiei erantzuteko zerbitzuak eskaintzen saiatu nahi dugu. Etxea oso handia da eta gauza asko egin ahal izateko aukera eman dezake. Datozen lau urteetan ekimen horrekin buru belarri egongo gara, eta nahiko lan izango dugula uste dugu.

Herri giroa sustatzen jarraituko duzue?

Kultura eta horrelako arloetan lehen bezala jarraituko dugu. Alegia, ahal den heinean, ekimen desberdinak egingo ditugu eta tailer edo ikastaroak eskainiko ditugu, bai gazte zein helduentzat.

Lizartzarrek izango dute zer ikusi eta zertaz gozatu

Leyre Carrasco Lizartza

Azaroa agurtzeko eta abenduari ongietorria emateko kultur ekitaldi ugari izango dituzte Lizartzan. Hilaren 24an emango diote hasiera kulturaldiari, eta egun horretan Iñaki Perurena harri jasotzaileak hitzaldia eskainiko du 19:00tan, udal aretoan. Horrez gain, besteak beste, erakusketa, irteera eta kontzertuak ere izango dituzte aukeran herriarrek.

Azaroaren 29an, esaterako, tailerra egiteko aukera izango dute herriko elkarteak, Balerdi-pekoren eskutik. Interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute udaletxean eta bos euro (hiru pintxo elaborazio) ordaindu beharko du parte-hartzaile bakoitzak.

Euskararen egunean, abenduaren 3an emango diote amaiera egitarauari, eta bakarrikzeta berezia izango dute Txikiren es-



2020ko Lizartzako udako ekintzetan parte hartu zuen gazte taldea. ATARIA

kutik, *Euskaldunen jatorria, historia eta irria* lelopean. Bakarrikzeta 19:00tan izango da, herriko gunean.

Bestalde, Otsabio Kirol Elkar- teak urtero antolatzen duen

erronkari hasiera emango diote tartean. Aurtengoan, *Ezetx 4!* lelopean egingo dute, eta hilaren 25ean izango dute lehen irteera. Amezketara joango dira Pernandoren ibilbidea egitera.

Oinkari dantza taldeko bikotea izan da garaile

Leyre Carrasco Lizartza

Oinkari dantza taldeko Onditz Esnaola lizartzarrek eta Jurgi Errandonea andoaindarrak irabazi dute Euskal Herriko bikote gazteen 45. Dantza Solte Txapelketa. Igandean jokatu zen, Bergarako Seminarixoa, eta sari nagusia irabazteaz gain, jantzi onenen saria ere eskuratu zuen bikoteak.

Guztira, Bederatzi bikote aritu ziren lehian Bergarako Musika Eskolako Udaren laguntzarekin antolatu zuen txapelketan. Bikoteek sei pausoko fandangoa dantzatu behar izan zuten txistularien laguntzaz eta sei pausoko arin-arina trikitilarien, Bergarako Txistulari Bandaren eta Estanga anai-arreba trikitilarien laguntzaz.

Txapelketaren bukaera eta epaimahaioak erabakia hartu bitartean, Bergarako Musika eta Dantza eskolako dantzariak koreografia bat eskainiko zuten *Gozategiren Askatasunari* abestia- rekin.

SARIDUNAK

Bederatzi bikotetik bostek lortu zuten saria: sari nagusia Onditz Esnaola lizartzarra eta Jurgi Errandonea andoaindarraren- tzat izan zen, baita jantzi onena- ren saria ere; bigarren postua Enara Artola eta Mikel Esnaola lezotarrek lortu zuten; hiruga- rren postua Ihintza Erauskin le- zotarrak eta Danel Castillo pasai- tarrak; laugarrena Alaitz Elorza eta Aner Elorza azpeitiarrek; eta bosgarrena Jare Labaka eta June Izagirre azpeitiarrek lortu zuten.

Egitarau zabala, Babarrunaren Festa ospatzeko

Larunbatean izango dira Tolosako Babarrunaren Festa eta Euskal Jaia; Lehiaketa Gastronomikoa San Frantzisko pasealekura lekualdatu dute



Babarrunaren Festaren antolatzaileak, atzo eguna aurkezten. J. ARTUTXA

Erredakzioa

Tolosako hitzordu garrantzitsuenetako bat izango da larunbatean, Babarrunaren Festa. Azken urteetan egin bezala Euskal Jaiarekin egingo du bat, eta egitarau zabala prestatu dute Tolosako Udalak, Eliker Zentroak, Tolosako Babarruna Elkarteak, Tolosako Babarrun Kofradiak eta Gure Kaiola elkarte gastronomikoak elkarlanean.

Aitor Agirresarobe Tolosako Merkataritza, Turismo eta Azokak Saileko zinegotziak esan du ekoizleen lana balioan jartzea dela ospakizunaren helburu nagusia, festaz gozatzearekin batera: «Kontsumo ohiturak azkar aldatuz doazen honetan, geroz eta beharrezkoagoa dugu gure kultura gastronomikoaren eta identitatearen parte den Tolosako babarruna eta honekin batera dastatzen ditugun bertako produktuak aldarrikatzea eta etxe guztietan presentzia izan dezaten eragitea. Baina baita ere produktu horiek gure mahaietara iristea ahalbidetzen duten ekoizleen lana azpimarratzea eta euren lana balioan jartzea. Gozatu dezagun eguna festa giroan, mahaiaren bueltan, familian eta lagun artean, eta tarte utzi hausnarketari ere».

Bestalde, Tolosako Babarrunaren ekoizle eta elkarteetako lehendakari Estitxu Sudupek gogoratu du larunbatekoa oso erakusleaho ona dela elkarlanean. «25 ekoizle hartuko dugu parte lehian eta hor erabakiko da zein den babarrun onena. Berez, 37 ekoizle gara, iaz baino 3 gehiago, eta hiru postu izango ditugu azokan. 20,5 hektarea egiten ditugu gutxi gorabehera eta aurten espero dugu 16.000-18.000 kilo bitartean jasotzea». Esan du aurtengo uztako babarruna txikia goa dela, baina egosteko erraza dela. Sudupek gazteak gonbida-

tu ditu ekoizle egitera «eta noski, festaz gozatzer».

BI LEHIAKETA ETA AZOKA

Babarruna bera da larunbateko festaren epizentro eta protagonista, eta haren bueltakoak izango dira egitarauko hitzordu nagusiak, Agirresarobek esan duenez. Jai egunaren erdigunean goizean zehar Trianguloan egingo den azoka berezia izango da, non 15 postu egongo diren, eta azokarekin batera bi lehiaketa egingo dituzte. Batetik, goizean goiz hasita, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen 28. Lehiaketa egingo dute. Eskualdeko ekoizle ugari parte hartu ohi du txapelketan, eta inguruko sukaldariak patroi bera jarraituz prestatuko dituzte babarrunak Trianguloa plazan. Tolosako Babarrunaren Kofradiako kidea den Miriam Arandia, Ilargi jatetxeko Mireia Carceller, Bailara jatetxeko Enrique Fleischmann eta gonbidatu batek osatutako epaimahaiak emango dute ezagutzera aurtengo ale onenaren ekoizlea nor den.

Beste lehiaketa Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa izango da. Gure Kaiola elkarteak antolatzen du eta aur-

tengo 35. edizioa izango da. Aurten San Frantzisko pasealekuan egingo dute estreinakoz, Tolosako Babarrunik onenak zein bikotek kozinatuko ebatzi nahian. Guztira 21 bikotek hartuko dute parte, eta 08:30ean hasiko dira babarrunak pixkana prestatzen. Ekoizleen Lehiaketa azken irabazlearen, Joxe Mari Aranbururen, babarrunak sukaldatuko dituzte denek. Eta epaimahai Ama jatetxeko Javi Rivero, Xare, Karela eta Talkako Gema Garmendia, Danon Txokoako Itxaso Calviño, Martinez Jatetxeko Xabier Martinez eta Tolosako Zentro Sozio Kulturalen Iñaki Etxeberria sukaldariak osatuko dute.

Antxon Iglesias Gure Kaiola elkarteetako lehendakariak gogoratu du elkartean 1987. urtean hasi zirela babarrunarekin lan egiten, «babarrunaren onurak zabaltzeko helburuz». «Hasieran elkartek bazkideekin antolatu zuen lehiaketa eta lehen lehiaketa elkartean bertan egin zen. 30 lekari prestatu zituzten 300 pertsonarentzat bazkaria egiteko. Babarruna bilatzen aritu ziren hainbat herritan bazkaria egin ahal izateko», gehitu du. Gaur egun, baina, bestelakoa da egoe-

ra. Lehiaketarako, esaterako iazko txapeldunaren babarruna erabiltzen dute, eta behin lehiaketa amaituta, parte hartzaile guztiekin batera elkartean bazkaltzen dute, «giro ederrean».

Bestalde, babarrunaren aurtengo uztaz dastatzeko aukera ere izango da, Babarrunaren Kofradiak dozenaka plater txiki banatuko baititu eguerdian Trianguloan. Eta ohikoa bihurtu den moduan, bazkalorduan, herriko elkarte eta tabernetan babarrun jateak ere egingo dituzte herritarrek.

EUSKAL JANTZIEKIN

Jatekoaz gain, egun osoan zehar eta goizaldera arte musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera ere izango da, kultur talde ugariaren eskutik Euskal Jaia ospatuko baita. Besteak beste Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Udaberri dantza taldea, Kanean txaranga, Itzal musika taldea eta Jainekin txaranga jarririko diote erritmoa larunbateko festari. Euskal Jaia izanik, soinean euskal jantziak eramateko deia egin dute jaiaren antolaketan aritu den Babarrunaren Kofradiak eta parte hartuko duten gainerako eragileek.

BABARRUNAREN FESTA

Goizean. Tolosako Babarrunaren 28. Ekoizle Lehiaketa, Tolosako Babarrunaren 35. lehiaketa Gastronomikoa eta azoka berezia Trianguloan eta San Frantzisko pasealekuan.

11:00. Eingo trikitilarien kalejira Trianguloatik hasita, eta Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa.

12:00. Udaberri Dantza Taldea eta Tolosako babarrunaren uztaberriaren dastatzea, Trianguloan.

12:45-13:30. Sari banaketak Trianguloan eta San Frantziskon.

14:30. Babarrun jateak elkarte eta tabernetan.

19:00. Kanean txaranga Gure Kaiola Elkartetik aterata.

22:00. Itzal taldearekin erromeria Plaza Berrian.

23:30. Jainekin txaranga Alde Zaharrean.

Tolosako Babarrun Kofradiako kide Armintz Gorrotxategik eskerrak eman dizkie festan parte hartzen duten guztiei eta gogoratu du uztaz garaia ospakizun garaia dela kofradiarentzat eta horregatik sustatzen dutela Euskal Jaia. Hori dela eta, herritarrei egin die dei «gure kultura sentitu eta baserritar jantziekin ateratzeko».

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 130€ • Harpidedunentzat 65€
HANDIA (124mm X 64mm): 180€ • Harpidedunentzat 90€
ESKERTZA (38mm X 64mm): 80€ • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Hainbat jarduera egingo dituzte Lehiberri egunean, hain zuzen, Joseba Madariagaren hitzaldia, enpresen mahai ingurua eta saretze espazioa. ATARIA

Eskualdeko ekonomia sustatzeko jardunaldia

Lehiberri eguna egingo dute hurrengo ostegunean, hilaren 23an; hitzaldia, mahai-ingurua eta saretze ariketa izango dituzte

Erredakzioa

Hurrengo ostegunean, hilaren 23an, egingo du Lehiberri eguna Tolosaldea Garatzenek. Hiru jarduera bilduz antolatu dute egitaraua eta aurretik izena emateko dei egin dute antolatzaileek. Jardunaldia Joseba Madariagak, Laboral Kutxako Ikerketa saileko zuzendariak zabalduko du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ekonomiari buruzko txos-

tena aurkeztuko du; jarraian, mahai-inguru bat egingo dute eskualdeko hainbat enpresarekin eta hizpide izango dituzte, besteak beste, enpleguaren gaur egungo egoera eta etorkizuneko erronkak. Amaitzeko, *networking* edo saretze jarduera bat egingo dute, helburu izanik enpresen arteko harremana sustatzea, lankidetzak aukerak sortzea eta enpresak elkarrengandik gertuago sentitzea.

Aimar Arzelus Tolosaldea Garatzeneko Enpresa saileko arduradunaren ustez «ez da batere erraza» hitzordu horietako bat nabarmentzea: «Guretzat guztiak dira garrantzitsuak eta interesgarriak. Jarduera bakoitzak

Urteko txostena aurkeztuko du Joseba Madariagak, Laboral Kutxako Ikerketa saileko zuzendariak

interesa bati erantzuten dio eta, hortik aurrera, bakoitzak erabakiko du zein iruditzen zaion erakargarria».

HELBURUAK ARDATZ

Arzelusek azaldu duenez, hiru helburu nagusi ditu jardunaldiak: Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren bilakaera eta aurreikuspenak ezagutzea, eskualdeko enpresen esperientziak entzutea zein ezagutaraz-

tea, eta horien arteko harremanak sustatzen saiatzea.

Hain zuzen, lehen helburua erdiesteko gonbidatu dute Joseba Madariaga. Urtero argitaratzen du EAEko ekonomiari buruzko txostena eta aurtengoari buruzko xehetasunak emango ditu aurkezpenean. Eskualdeko enpresek esperientziak partekatzeke, berriz, mahai-ingurua egingo dute, eta bertan landuko dute nola egiten dieten aurre ia guztiek pairatzen dituzten arazoei, kasurako, enpleguaren eta talentuaren kudeaketari. Azkenik, enpresen elkarlana sustatzea xede, *networking* edo saretze ariketa egingo dute. Jarduera horren bitartez eskualdeko enpresen arteko elkarlana bultzatu nahi dute, horrela lortuko omen dutelako esperientziak partekatzen jarraitzea eta eskualdean enpresen sarea indartzea.

EGUNEROKOTIK ATERATZEKO

Tolosaldea Garatzeneko Enpresa saileko arduradunaren hitzetan «beti dira interesgarriak eta beharrezkoak» mota honetako egitasmoak: «Enpresak egunerokotasunetik ateratzeko balio du, eta, modu horretan, beste helburu batzuetan zentratu daiteke, zeinak, normalean, zeharkakoak baina ezinbestekoak izaten diren».

Dena dela, Arzelusek nabarmendu du jabetzen direla ez dela posible horrelako jardunaldiak askotan egitea, enpresak aurrera eramaten dituen «eguneroko lana delako». Antolatzeke garraian, gogoan izan dituzte interes ezberdin guztiak eta eskualdeko edozein enpresa gerturatzeko moduko egitaraua prestatu dute.

Begirada datorren asteko ostegunean jarrita, berriz, antolatzaileek dei egin dute aurretik izena emateko. Bi modutan egin daiteke: telefonoz, 943654501 zenbakira deituta; eta emailaz, lehiberri@tolosaldea.eus helbidera idatzita.

LEHIBERRI EGUNA

AZAROAK 23 - 10:00
LEHIBERRI ZENTROAN



- EUSKAL EKONOMIA TXOSTENAREN AURKEZPENA: JOSEBA MADARIAGA, Laboral Kutxako Ikerketa Departamentuko zuzendariaren eskutik.
- TALENTUAREN INGURUKO MAHAI INGURUA ESKUALDEKO ENPRESEKIN
- NETWORKING ESPAZIOA



Izen-ematea:



Irurako Onintza abesbatzak trukea egin du Herrialde Katalanetako Lliça d'Amunt herriko abesbatzarekin; maiatzean egon ziren katalanak Iruran eta urri bukaeran egin dute han egonaldi laburra irurarrek

Iruratik Lliça d'Amuntera bisitan

Jon Miranda

Herrialde Katalanetan baloratzen dute euskal kultura. Horrela uste dute Irurako Onintza abesbatzako kideek. Urri amaieran hiru eguneko egonaldia egin zuten Lliça d'Amunt herrian eta harrera «ezin hobe» egin zietela azpimarratu dute bertara joandakoek. «Oso esperientzia ona izan da, errepikatzeko modukoa», esan du Nerea Mendizabal abesbatzako kideak.

Onintzako hamar kide egin zuten hiru eguneko bidaia Kataluniara eta egonaldia bazterrak ezagutzeko baliatu zuten. Besteak beste, Bartzelonako Familia Santuaren tenplua eta Palau de la Musica delakoa ezagutu zituzten Kataluniako lagun eskutik. Larunbatarekin Lliça d'Amunteko elizan eskaini zuten emanaldia. Aurtengo sanmigeletan eskainitako kontzerturako prestatutako errepertorioa moldatu eta kantu berriak ere eskaini zituzten.

Besteak beste, *Rossinyol* abesti tradizionala eta Joan Manuel Serratek *La, la, la* kantaren katalanezko bertsioa eman zituzten iru-

rarrek. «Hango lagunak ez zuten horrelakorik espero eta oso hunkigarria izan zen. Ez nuke esango inoiz eman dugun kontzerturik onena izan zenik, baina esan dezakegu oholtza gainean oso-oso eroso sentitu ginela, berezia izan zen saioa», esan du Mendizabalek. Amaitzeko, Lliça d'Amunteko abesbatzako kideekin batera *Isil-isilik dago* kantatzeko aukera izan zuten.

Ez da orain-oraingoa irurarrek katalanekin duten harremana. Abesbatzako kide den Marimi Ugaldek azaldu du nola egin zuten elkarren ezaguera: «Canovelles herriko lagunak bitartez izan zen. Duela urte batzuk haiekin egin genuen dantza taldeen arteko elkar trukea eta haiek jarri ziguten Lliça d'Amuntekoen arrastoan, hauek ere dantzari trebeak baitira. Harremana egin eta 2022ko sanmigeletan etorri ziren hango dantzariak. Bisitatu gintuzten hartan komentatu ziguten haiek ere abesbatza zutela herrian eta horren aitzakian beste truke bat egin genezakeela bururatu zitzaigun». Lliça d'Amunteko kantariak aurtengo maiatza kulturalean etorri ziren kantu emanaldi bat eskaintzera eta



Lagun katalanen eskutik Bartzelonako hainbat toki bisitatu ahal izan zituzten Onintza abesbatzako kideek. ATARIA



Lliça d'Amunt herriko elizan eskaini zuten Onintza abesbatzak emanaldia. ATARIA

duela aste gutxi itzuli diete bisita irurarrek.

TRUKEA ABERASGARRI

Onintza abesbatzak emanaldi gutxi batzuk eskaintzen ditu urtean zehar: maiatza kulturaleko eta festetako emanaldiez gainera, Eguberrietan kontzertu bat eta San Joan bezperan beste saio bat eskaintzen dute herrian. «Gure tankerako beste abesbatzekin truke gehiago egiteko aukera aztertut nahi dugu hemendik aurrera, beti delako aberasgarria elkar ezagutza izate hori», dio Mendizabalek.

Josune Intsaustik egiten ditu zuzendari lanak Onintza abesbatzan. «Izugarrizko lanak hartzen ditu kantuak moldatzen eta errepertorioak antolatzen», esan dute bere taldekideek Intsaustigatik. Lagun taldea direla dio zuzendariak, baina lana «serio» egiten dutela eta abesbatzak ondo funtzionatu dezan, ondoan eginkizun jakinak dituzten beste hainbat kide dituela azpimarratu du.

Astean behin egiten dituzte entseguak. «Elizan kantatu izan duen jendea badago, kanturako afizioa duena, baina ibilitakoak pare bat baino ez dira izango. Nire

lana dauzkagun ahots horiei ahalik eta etekin handiena ateratzea da», esan du Intsaustik. Ez dute lorpen txikia egin Onintza abesbatzakoek. Euren ibilbidean 15 hizkuntza baino gehiagotan kantatu dituzte abestiak: euskaraz, noski, baina baita hebreeraz edota swahiliz.

Gaur egun 18 kide inguruk hartzen dute parte abesbatzan eta kideek jende gehiago nahiko lukete taldean. 45 urtetik 83 urte bitarteko herritarrak aritzen dira eta «be-lanaldiartekotasuna» da taldearen ezaugarrietako bat. «Adin ezberdineko jendea elkarrekin aritzea oso gauza polita da», Mendizabalen esanetan.

Eguzki Goxo izenarekin sortu arren, badira urte batzuk Onintza izena erabiltzen dutela. Ugaldek azaldu du: «Patxiku Pagadizabal herritarraren omenez aukeratu genuen izena. Kronista bezala ibiltzen zen eta *Onintza* ezizena erabiltzen zuten bere idatzietan». Katalunian izan duten esperientziatik abiatuta gonbita egin diete herritarrei abesbatzara animatu daitezen. Umorez esan du Intsaustik: «Hemengo inork ez du erretiroa hartzeko asmorik, ez dugu erreleborik behar, abesbatza handitzea baizik».



zozketak

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Caceres Patrimonio
de la H
partida ikusteko

Azaroak 19, igandea
17:00etan
Angulas Aguinaga Arenan



Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Club Ourense Baloncesto
partida ikusteko

Azaroak 24, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu



Euskarazko bertsioaren estreinaldia

Euli Dantza
antzezlan

Azaroak 19
igandea
19:30ean
Villabonako
Gurean

Bi Atarikiderentzat
launa sarrera ditugu



Txirri, Mirri eta
Txiribiton pailazo
taldeak eskainiko duen
Pailazo ikuskizuna

Azaroak 18
larunbata, 17:00etan
Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus

Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak bilera egingo du gaur

Tolosako kultur etxean ikasturte berrirako dauzkaten asmoen berri emango dute 19:30etik aurrera; gogoetarako espazio honetan parte hartzeko deia zabaldu diete gainerako gizonezkoei

Jon Miranda Tolosa

2019an sortu zuten berdintasunaren aldeko gizonezkoen taldea Tolosan. Ordutik lau ikasturte egin dituzte eta gaur abiatuko dute bosgarrena, Tolosako kultur etxean 19:30etik aurrera egingo duten bilerarekin. «Sei eta hamar lagun artean bildu izan gara orain arte, baina gustatuko litzaiguke jende gehiago elkartzea», esan dute taldeko kideek. Beraz, jendarte berdinaleago eta hobeko bat lortzeko lan egiteko prest dauden gizonezkoak deitu dituzte gaurko bilerara.

Hiruzpalau astez behin biltzen dira berdintasunaren aldeko gizonezkoak. Lehenengo ordu laurdena emozioen inguruan aritzeko baliatzen du: «Gure emo-

zioen inguruan aritzeko erabiltzen dugu lehen partea; saiatzen gara bakoitzak gune bat izan dezan iruditzen zaion hori esateko, eta aldi berean gainerakook ikasten dugu aldamenekoaren jarduna etengabe trabatu gabe espazio berean egoten».

Behin bilerara zein aldarerekin gerturatzaren diren azaldu ondoren, hainbat gaietan sakontzeko baliatzen dute bilera. Orain arte, gizonezkoen pribilegioak, indarkeria matxista, emozioak, zaintza, aitaltasuna eta gisa horretako gaiak aztertu dituzte. «Askotan mutilok ez dugu gai horien inguruko ardura hartzen eta gogoeta horiek piztu nahi ditugu gure artean aldaketak egiten hasateko, hori baita jendarte pixkana eraldatzeko modua».

Jende gehiago biltzeko zailtasunen inguruan ere hitz egin dute taldekideek: «Zenbaitengan erresistentziak nabari ditugu lan-keta hauek egiteko, eta batez ere, gizonezko gisa dauzkagun pribilegioak eta ezberdintasuna eragiten duten jarrera hauek geure buruari aitortzeko». Gaiak duen garrantziaz ohartarazi nahi dituzte gainerako gizonezkoak. «Arazo honen parte gara, beraz badugu erantzukizuna konponbidean. Ez dezagun segi, behintzat, hainbeste ezberdintasun sortzen duen sistema hau elikatzen».


Hausnarketarako espazio bat sortzea da berdintasunaren aldeko gizonezkoen taldearen helburua, parte hartzaileek azpimarratu dutenez, «emakume feministek duten gune horretan



Gizonezkoen taldean parte hartzen duten kideak bilera batean. J.M.

esku-hartu gabe eta espazio hori okupatu gabe». Borroka feministari zein ekarpen egin diezaieketen aztertzen dute bileretan, eta batez ere, ekarria nondik egin diezaioketen. «Askotan hanka sartu izan dugu eta berriro ere joera berdinean jausi izan gara. Egoera konpontzera gatozen salbatzaile gisa agertu izan gara eta joera hori aldatu beharra dago».

Bosgarren ikasturtea abiatuko dute gaur Tolosan eta bertaratze-ko aukera ez duten gizonezkoei ere helarazi diete mezu: liburutegian eta kultur etxean ikasturte osorako programazioa zintzilikatu dute, bilera guztien datekin eta bilera bakoitzean jorratuko dituzten gaiekin. Irekita daude herriko gizonezkoekin gai horiek denak partekatzeke.



«Gizonezkoak konpromiso zehatzak hartu beharko genituzke»»»

MIKEL OTXOTORENA
ON: GIZ ELKARTEA

J.M. Irura

Azaroaren 23an 19:00etan, Irurako gela borobilean *Eta gizonak zer? Maskulinitatearen lanketarik, indarkeria matxistei aurre egin* hitzaldia emango du Otxotorenak Irura Moretuz taldeak gonbidatuta.

Zeinentzako izan daiteke inte-

resgarria zuk emango duzun hitzaldia?

Jendarte osoarentzat, gaiak jendarte osoari eragiten baitio. Zoritarrez, protagonista gizonezkoak izaten gara eta hori ardatz hartuta gai ezberdinak jorratuko ditut hitzaldian.

Zer espero da gizonezkoen indarkeria matxistaren aurkako eguna bezalako hitzorduetan?

Jarrera bat agertu baino gehiago, gizonezkoak egun hauek baliatu beharko genituzke kontzientzia handiagoa hartzeko. Egia da azkeneko hamarkadetan geroz eta presenteago dauzkagula indarkeria matxistak, eta horrek, nolabait, mezu bat bidaltzen digu gizonezkooi. Zer egin genezake? Nolako izan beharko luke gure paperak? Uste dut konpromiso zehatzak hartu beharko genituzkeela arazo latz honen aurrean.

Zer nolako konpromisoak?

Uste dut non begiratu badugula. Urteak daramatza mugimendu feministak gai honen inguruko lanketa egiten. Gizonezkoak asko daukagu ikasteko. Hausnarketa eta lanketa horiez harago, bertan aipatzen direnak barneratzen egin behar dugu ahalegina. Hor dago, nagusiki, zailtasun handie-

netako bat. Diskurtsoarekin bat egitea erraza da, baina planteatzen zaizkigun baloreak gure egin eta balore horiek gure baitan barneratzea kosta egiten zaigu.

Indarkeria matxistak, askotarikoak dira. Gai al dira gizonezkoak indarkeria horiek identifikatzeko?

Uste dut oraindik ezetz. Kontzientzia maila ez dago hain presente gizonezkoengan. Berriki Europa mailan egindako ikerketa batean emandako datuak nahikoa kezkarriak dira. Indarkeria matxistak oso errotuta daude gure artean, egiturazkoak dira, eta askotan ez gara jabetzen egiten ari garen hori eraso izan daitekeenik. Gizonezkoak, kontzientziaz aparte, konpromisoa agertu eta horrelako egoeren aurrean planto egin behar dugu. Whatsappeko talderen batean iritzi erabat sexistak egiten badira, adibidez, posizionatu eta ohartarazi behar genituzke ondoan dauzkagun gizonezkoak. Hor dago zailtasuna, korrontearen kontra joatea ez baita xamurra izaten eta gehienetan zigortu egiten baita. Baina berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzeaz ari garenean horretaz ari gara.

Maskulinitate eredu berriak lantzeak laguntzen al du indarkeria matxistari aurre egiten?

Bagoaz pixkana. Maskulinitate berriei hitz egiten da baina nik nahiago dut askotariko maskulinitatez hitz egin edo berdintasunaren aldeko gizonezkoek. Izan ere, maskulinitate berriak izan daitezke aldi berean matxistak. **Zein beste jarraibide hartu dezakete gizonezkoek indarkeria matxisten aurka posizionatzeko?**

Gure jendartetan oso errotuta dagoen egitura sozial, kultural, politikoa eta ekonomikoa da patriarkatua. Ez da egun batetik bestera eraldatuko, pausoz pauso egin beharko dugu, oinarriak ondo finkatuz. Epe ertain-luzerako lana da. Mugimendu feministak esandakoa, entzun, ikusi eta ikasi behar dugu. Azaroaren 30eko greba feministak orokorraren hari- ra, adibidez, deia gizonezkooi ere luzatu zaigu. Zaintzaren gaian hastapenetan baino ez gaude. Gure burua birkokatzeke aukera ematen digu deialdi horrek.

Geroz eta kontzientzia handiagoa dute gizonezkoek indarkeria matxistekin?

Gazteen alde egiten dut nik. Az-

keneko urteetan egiten ari diren azterketek hobera egiten ari garela erakusten dute. Emakume eta gizon gazteak geroz eta kontzientzia handiagoa dute gai honen inguruan, nahiz eta batzuetan agertzen diren indarkeria matxista justifikatzeko diskurtsoak. Berdintasunarekiko konpromiso handiagoa dute belaunaldi berriek. Hori argi dago eta etsipen batean erortzea ez da modurik egokiena aurrerapausoak emateko. Askotan ardura guztia gazteengan jartzen dugu, baina ez dugu ahaztu behar helduak garela gazteak hezten ditugunak. Helduok ere zerbait egin behar da. **Gizonezkoek gai hauen inguruan egiteko espazioak badi- tuzte gauregun?**

Espazioak egon badaude, beste kontu bat da interesa ote dugun horietan parte hartzeko. Hori da konpromisoaren beste alde bat. Gizon talde ezberdinak dauzkagu Euskal Herrian, indar handiagorekin edo txikiagorekin. Eraldaketa pausoz pauso eta egunero egin behar dugu gizonezkoak. Egunerokoa dira indarkeria matxistak, beraz, haiei aurre egiteko lanak egunerokoa behar du izan. Badugu zeregina.

Balleta ikasteko aukera izango da Belabietan

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Belabieta kiroldegian balleteko klaseak jasotzeko aukera izango da asteazkenetan, azaroaren 29tik aurrera. Ordutegia ondorengoak izango da: 17:30etik 18:30era, LH5 eta DBH3 bitartean; 18:30etik 19:30era, HH5etik LH4ra bitartean; eta 19:30etik 20:30era, DBH4tik gorakoak.

Prezioari dagokionez, hilabetean 20eurokoa izango da eta <https://forms.gle/pwao22rC5qEHqSor7> loturaren bidez azaltzen den galdetegian eman daiteke izena. Edozein zalantza argitzeko, interesatua Belabieta Kirol Klubarekin jarri daiteke harremanetan, baita jarritako ordutegian posible ez izanagatik aldatetaren bat behar izanez gero

ere. Horretarako 621 022 105 zenbakira deitu, belabietagimnasia@gmail.com helbidera idatzi edo Belabieta.wordpress.com webgunean sartu daiteke.

EUSKALGYM TXAPELKETA

Belabieta Kirol Klubeko gimnastak azaroaren 4an eta Sean Barakaldoko BEC-en egon ziren, bertan Euskalgym txapelketa egin baitzen.

Belabietako oinarrizko jubenil taldeak parte hartu zuen eta 14. postua lortu zuen. Klubeko Inko Oruesagasti gimnastak ere parte hartu zuen 5. postua lortuz barkarkako lanean. Estatu mailako txapelketa garrantzitsuenetako bat da Euskalgym, eta Belabieta Kirol Klubetik «oso gustura» daude bertan lortutako emaitze-kin.

Hurrengo fasera pasatzea dute helburu

Tolosa Eskubaloiak bere multzoko lehen lau postuetan sartzea du helburu, hurrengo faserako sailkatu ahal izateko



Tolosa Eskubaloia lehen taldeko kideak eta entrenatzailea. TOLOSA ESKUBALOA

Porrot mingarria Añorgan

Aulkitik

Patrizia Larrarte

Tolosa CF, 3. RFEF maila

Añorgan jokaturako norgehiagokaren ondoren, dinamika txarri buelta eman ezinean gabiltza.

Jokatu ditugun azken 4 partidak galduta joan ginen beste talde gipuzkoarrari aurre egitera pasa den larunbatean. Jakina zen partida zaila eta gogorra izango zela, eta horrela izan zen. Hasieratik bi taldeak gogor hasi ginen, baina añorgarrak maila altuagoa erakusten zutela nabari zen, eta horren erakusle izan zen 33. minutuan iritsi zen gola. Min handia egin zigun gol horrek, eta, hori gutxi balitz, atsedenaldira arnasa hartzera joan aurretik 2. gola jaso behar izan genuen, jokalarien animoak jaitsiz.

Atsedenetik bueltan, pilak pixka bat kargatzeko eta burua altxatzeko tarte hartu ondoren, gogoz eutsi genion bigarren aldiaren hasierari. Hala ere, 53. mi-

nutuan, berriro ere, Añorgako taldearen gola etorri zen markagailuan 3-0koa ipiniz. 2 minuturen baitan, ordea, gure taldeak erreakzio oso ona izan zuen eta markagailuko distantzia murriztea lortu genuen 55. minutuan, Alaitzen gol baten eskutik. Golak emandako itxaropena baliatuz, lanean jarraitzeko kemena aurkitu genuen. Ahaleginak egiten jarraitu zuen talde osoak, baina ez genuen aukera garbirik sortu. Partidak dinamika berdinean jarraitzen zuen eta 83. minutuan norgehiagoka guztiz itxita utzi zuen Añorgako jokalarietako batek 4-1koa ipini zuenean markagailuan.

Partidan zehar aurkariak gehiago izan ziren arren, inondik inora ere ez genituen besoak jaitsi partida osoan zehar. Egingadako lanak ez zuen fruiturik eman eta punturik gabe geratu behar izan genuen jardunaldi honetan.

Aste honetan ez dago jardunaldirik. Atsedean eta indarrak hartzeko unea da, hurrengo partidetan maila gorena eman eta, dinamika aldatuz, puntuak lortzen jarraitzeko. Hurrengo norgehiagoka C.D. Parquesol taldearen aurka jokaturako dugu etxean, gogotsu eta irabazteko gose izugarriarekin ekingo diogulakoan gaude.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Sei jardunaldi pasa dira Tolosa Eskubaloia emakumezkoen lehen taldeak denboraldia hasi duenetik. Laugarren denboraldia da senior taldea martxan jarri zuela, eta hori nabaritzen dela aitortu du Nerea Esnaola kapitainak: «Oso kontentu gaude, gero eta erosoago gaude senior mailan, eta jarraitzeko gogo asko dugu». Denboraldi honetan hurrengo fasera pasa nahi dute, eta horretarako beren multzoko lehen lau postuetan egon behar dute ligaren lehen fasea bukatzean.

Jokalaria gazteak gehitu dira lehen taldera. «Aurten, bereziki, jubenil taldea atera ez dugunez, hiruzpalau jubenil ditugu gurekin jokatzeko, eta bestela betikoe jarraitzen dugu», zehaztu du Esnaolak. «Taldea gaztea izaten jarraitzen dugu, eta kontentu gaude nahiko talde dezentea ateratzen dugulako aurten, hamasei jokalarirekin, eta alde horretatik oso pozik gaude». Jokalaria taldean mantentzeak abantailak dituela gaineratu du Esnaolak: «Gehiago ezagutzen gdugu elkar, eskarmentu handiagoa dugu ligan, eta horrek alde handia markatzen du. Lehenengo urteetan berriak ginen, eta aurkariarekin nahiko galduta genbil-

tzan. Besteek esperientzia gehiago zuten, eta gaur egun ere dute, 30 urteko emakumeen aurka jokatzeko dugulako, baina eskarmentu hori ere etorriko zaigu». Horrez gain, taldera iristen diren gazteei beste segurtasun bat ematen dietela gaineratu du.

Entrenatzailea Slava Kobinda, eta denboraldi hau bere bigarrena da. «Aurreko urtean urte polita izan genuen berarekin», esan du kapitainak. «Errusiarra izanik, hasiera batean komunikazioa pixka bat gehiago kostatu zitzaigun, baina aurten alde hori erraztu dugu, eta hobeto ulertzen dugu elkar. Bere estilo pertsonala du, adibidez entrenatzeko, baina gero eta gehiago ezagutzen gaitu, eta guk bera ere bai, eta aurten errazagoa izaten ari da».

AZKEN PARTIDA, JOKATU GABE

Tolosa Eskubaloia seigarren jardunaldiko partida zuen asteburuan Saieko Mon Paperdena taldearen aurka, baina bertan behera geratu zen. «Donostian jokatzeko genuen eta kiroldegira joan ginen eta kantxa guztia bustita zegoela ikusi genuen», esan du Esnaolak. «Dirudienez, hezetasunarengatik eta egun guztian jokaturako partiden ondoren, kantxa blai eginda zegoen. Beste taldearekin eta epailearekin

adostu genuen ez zela batere seguru horrela jokatzeko, eta beste baterako utzi genuen».

Partida bat gutxiago jokatu, sailkapenean laugarren postuan dago taldea, hiru partida irabazi eta bi galduta. «Espero genuenaren ildotik doa denboraldia. Justu pasa den asteburuko partidarekin genuen zalantza, baina orain arte irabazitako hiruretan garaipena lortzeko aukerak genituela bagenekien. Galdutugun bi partidak Irauliren eta Orioren aurka izan dira, eta kontziente gara horiek direla gure multzoko talde indartsuenak», azaldu du Esnaolak. «Gure arteko komunikazioa asko hobetu da, elkarren artean hitz egiteko eta adierazteko, eta horrek asko laguntzen du».

Gipuzkoako lehen mailan lehiatzen ari dira Tolosa Eskubaloioak eta bertan bi multzo daukete. Horietako batean bederatzi talde daude, eta bestean, Tolosa lehiatzen den multzoan, zortzi. Multzo bakoitzeko lehen lau taldeak hurrengo faserako sailkatuko dira, eta horien artean izango dira gero jokoan igoera postuak. «Gure helburua da gure multzoaren barruan lehen lau taldeen artean egotea eta hurrengo fasea jokatzeko aukera izatea. Uste dugu egingarria dela», azaldu du Esnaolak.



ASTEAZKENA, 2023KO AZAROAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 15

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Amasa-Villabona EH Bilduren herri batzarra, udaletxeko balio anitzeko gelan, 19:00etan.

Tolosa. *El circo de Lescun. Unas montañas de ensueño* Juan Mari Ansa Munduate egilearen eskutik, Antxon Bandres Bidaiaien Txokoa, 19:30ean.

Tolosa. Berdintasunaren aldeko gizonen taldearen aurkezpena, 19:30ean.

Tolosa. Muttertumeuskal emakume eskultoreen erakusketara bisita gidatua, bi ahotsetako poema irakurketarekin lagunduta. Aranburu jauregia, 19:00etan.

Tolosa. *Konponbiderako giltzak* Onintza Ostolaza abokatuarekin eta Nahikari Iturbe Sare herritarren plataformako kidearekin solasaldia, kultur etxean, 19:00etan.

Tolosa. Ornitologiaren hastapenak ikastaroa, Biodibertsitategunean, Antxon Bandres Bidaiaien Txokoa, 18:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Alegia. *Nur eta herensugearen tenplu* filma, Alegiako Gaztetxean, 17:30ean.

28 KANALA

10:30. Musika zuzenean.

13:30. Tolosaldea Gertutik.

15:00. Elkarriketap.

19:00. Zer esan?

21:30. Tolosaldea Gertutik.

22:00. Azokatik mahaira - Azkoitia.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi 6, behea 1.943 67 5118.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarretalorategiak, 1.943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Altxatzera egingo du. Goizean hodeiak ugariak izango dira eta han-hemenka euri pixka bat izango da. Eguerdi aldera atertu eta arratsaldean ostarteak irekiko dira, zeruian hodeiak eta ostarteak tartekatuko direlarik. Goizean ipar ukituko haizea ibiliko da, baina arratsaldean ekialdera aldatuko da. Tenperatura jaitsi egingo da 16-18 graduan joz goia.

Bihar. Giro kaxkarragoa. Goizean hodeiak oso ugariak izanagatik euria urria izango da eta nahiko ateri eutsiko dio. Arratsaldean hodeiak are gehiago trinkotuko dira eta euri gehixeago izango da, bereziki ilunabar, gau partean. Haizeak goizean hego-mendebaldetik joko du, arratsaldean ipar-mendebaldera aldatuko delarik. Tenperatura 18-20 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bertsotan, pentsioen gaian sakontzeko

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Bertsopentsiotan, Pentsiodunen I. Bertso Jarrien Lehiaketa antolatu du



Astelehenetan, hamabostean behin egiten dute protesta pentsiodunek Tolosan. JOSU ARTUTXA

Erredakzioa

Pentsiodunen mugimenduak Bertsopentsiotan, Pentsiodunen I. Bertso Jarrien Lehiaketa jarri du martxan, pentsioen gaian sakontzeko aukera eskaini eta «bertsogintza, pentsamendu eta ideia berriak gizarteratzeko baliabide gisa». Bertsopentsiotan lehiaketak euskara, kultura eta bertso mundua uztartzen dituela esan dute: «Astelehenero plaza biltzen garenon belaunaldiak ez du izan erraztasunik euskaradunak izateko. Batzuei, gurasoen patrimonioa debekatu eta eskoletan gaztelera edo frantsesa inposatu ziguten; beste askori, berriz, berreskuratzeko inolako baliabiderik ez diete eskaini.

ni. Ariketa xume hau pentsiodunen mugimenduak euskal kulturari egin nahi dion ekarpena da».

Euskal Herriko zein diasporako pentsiodun eta 60 urte bete dituzten guztiek bidali ditzakete lanak eta *Ari garela, ari garela, astelehenero kaleratu da gaia*. Lanak gutxienez 3 eta gehienez 6 bertsoko sortak izan behar dira, neurri librean eta, ahal dela, erabilgaitako doinua zehaztuta. Bertsoak posta arruntaz (20 posta kutxa, Iurreta, 48.215 -Bizkaia-) edo helbide elektroniko bidez (*bertsopentsiotan@gmail.com*) bidali daitezke eta urtarilaren 15a izango da azken eguna. Sari banaketa egiteko ekitaldi publikoa eta zabala egingo dute, parte hartzaile guztiak egongo dira

gonbidatuta eta sarituek euren bertsoak kantatzeko aukera izango dute. Ez da diru saririk izango.

ZORION AGURRAK



Zorionak Euri!

Seimuxu maite zaitugun guztion parte!

atarikideen
abantailak

EHUN FISIOTERAPIA

%10eko
deskontua



PANTTA

Ardoa opari



TXINDOKIKO ITZALA

%10eko
deskontua



SOLUMOBEL

100 euroko
deskontua



ataria.eus/kideak

